

Año LVI. urtea

137 - 2024

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Varia.

Azentua eta hasperena:

QED

José Ignacio Hualde

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVI. urtea - N.º 137. zk. - 2024

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Aproximación a la etimología de <i>Irulegi</i> y al origen del final <i>-legi</i> Patxi Salaberri Zaratiegi, Iker Salaberri Izko	9
The division of labour between the Basque articles in the indefinite domain Silvie Strauss	39
<i>Elze estalquia</i> y otras antiguas injurias vascas Josu M. Zulaika Hernández	69
<i>Gernikaren</i> ekfrasiak Harkaitz Canoren <i>Belarraren ahoan</i> Leire Iruretagoiena Goikoetxea	93
Etorkizuneko irakasleak eta euskara: identitate eta ikuspegi linguistikoak aztergai Mikel Gartziarena	111
Memoriaren arrastoa euskal HGLn. <i>Gerrak ez du izenik</i> albumaren azterketa Amaia Serrano-Mariezkurrena, Ursula Luna, Nerea Permach, Berta Echeberria	137
Sudurkaritasun fonologikoa Larrainen: /h̃/ bai, baina bokalik ez Iñigo Urrestarazu-Porta, Andrea García-Covelo, Ander Egurtzegi	163
Euskal ondare lirikoaren berregitea Sarrionandiaren lanetan: herri-genero neurtuak Ane Arandia Morgaetxebarria	191

Sumario / Aurkibidea

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS 227

VARIA

Azentua eta hasperena: QED
José Ignacio Hualde 235

Almadiak Zaraitzu eta Ezka ibaietan barrena XX. mendearen lehen erdian:
euskarazko lekukotasunak
Koldo Artola 243

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /
Rules for the submission of originals 315

Azentua eta hasperena: QED

Accent and aspiration: QED

El acento y la aspiración: QED

José Ignacio Hualde
University of Illinois at Urbana-Champaign
jihualde@illinois.edu
<https://orcid.org/0000-0003-4969-2995>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv137.10>

Lan hau Jon Francoren oroimenean idatzi dut. Zoritzarrez ez nintzen garaiz heldu berari eskainitako liburuan parte hartzeko. Nire adiskide ona zen eta gogoan dut.

LABURPENA

Hiru herskari sail dituzten euskalkietan, herskari ahoskabeak hasperendunak dira gehienetan hitzaren bigarren silabaren hasieran daudenean, adib. *akher*. Hala ere, badira salbuespenak, silaba horretan /ptk/ hasperengabeak dituztenak, adib. *jakin*. Mitxelena iradoki zuen lehenagoko garai batean azentuaren kokaguneak baldintzatzuz zuela hasperena. Hau da, herskari ahoskabeak hasperendunak ziren silaba azentudunetan eta hasperengabeak azentuaren ondoren. Hemen ebidentzia zuzena ematen dut Mitxelena hipotesiaren alde. Analisia Goizuetako hizkeraren azentu-bereizketetan oinarritzen da.

Gako hitzak: azentua; hasperena; euskara batu zaharra; metodo konparatzailea.

RESUMEN

En dialectos vascos con contraste ternario en las oclusivas, las sordas son generalmente aspiradas en el ataque de la segunda sílaba de la palabra, p.ej. *akher* ‘macho cabrío’. Hay, sin embargo, algunas excepciones con sordas no-aspiradas en esa posición, p.ej. *jakin* ‘saber’. Mitxelena sugirió como hipótesis que en una época la aspiración estuvo condicionada por el acento. Las oclusivas sordas eran aspiradas en el ataque de la sílaba tónica, pero no después del acento. Aquí presento evidencia que confirma directamente la hipótesis de Mitxelena a partir del análisis de la distribución del acento en la variedad altonavarra de Goizueta.

Palabras clave: acento; aspiración; vasco común antiguo; método comparativo.

ABSTRACT

In Basque dialects with a three-way VOT phonological contrast in the plosives, voiceless plosives are generally aspirated when they occur on the onset of the second syllable of the word, e.g. *akher* ‘billy goat’. There are, however, some exceptions, with unaspirated /ptk/ in that position, e.g. *jakin* ‘to know’. Mitxelena hypothesized that, at an earlier time, aspiration may have been conditioned by stress-accent. That is, voiceless plosives were aspirated on the onset of the stressed syllable, but not after the stress. Here I provide direct evidence confirming Mitxelena’s hypothesis, based on the analysis of accentual distinctions in the dialect of Goizueta.

Keywords: accent; aspiration; Old Common Basque; Comparative Method.

1. HERSKARI HASPERENDUN ETA HASPERENGABEEN BANAKETA, ETA MITXELENAREN HIPOTESIA AZENTU ZAHARRARI BURUZ. 2. GOIZUE-TAKO AZENTU-KLASEAK ETA METODO KONPARATZAILEA. 3. ERKAKETA ZABALDUZ: EUSKARA BATU ZAHARRAREN AZENTUERAREN BERRERAI-KETARANTZ. 4. ERREFERENTZIAK.

1. HERSKARI HASPERENDUN ETA HASPERENGABEEN BANAKETA, ETA MITXELENAREN HIPOTESIA AZENTU ZAHARRARI BURUZ

Mitxelenak ikusi zuen Ipar Euskal Herriko euskaraz herskari ahostunak gehienetan hasperendunak direla hitzaren bigarren silaban aurkitzen direnean: *akher, ekhi, ithurri, ethorri, bethi*, etab; baina ohartu zen, halaber, mailegu zahar batzuk salbuespenak direla: *bake, mutu, neke, joku*, etab. (Mitxelena, 1977/2011, 178.-179. or., 331.-332. or.). Mitxelenaren proposamena da hasperenketa bakarrik silaba azentudunean mantendu edo sortu zela. Hipotesiz, beraz, hizkuntza zaharrean azentua bigarren silaban jartzen zen: **akhér* (ez, dena den, berreraiki daitekeen garairik zaharrean). Aipatutako salbuespenak azaltzeko, Mitxelenak iradoki zuen mailegu horietan azentua jatorrizko kokagunean mantendu zela: **báke*.

Era berean esplikatu zuen Mitxelenak *jakin* aditza, beti herskari hasperengabearekin agertzen dena, jatorriz hirusilabaduna baita: **eákin*. Horietaz gain, *típi, guti* adierazgarriak aipatzen ditu hasperenik gabeko salbuespenetan.

Geroago, azentua hitzeko azken-aurreko silabara lerratu zen sistematikoki Ipar Euskal Herriko euskalkietan (Mitxelena, 2011, 344. or.), [+1] eta [+2]¹ hitzen arteko azentu bereizkuntza zaharra ezabatuz eta hasperena utziz antzinako azentueraren aztarna bezala. Zub. *ákher, béthi, ékhi, ékhar, üthúrri, lépho* vs. *báke, mútü, mérke*,

1 Laburdurak: [+1] = azentua lehen silaban, [+2] = azentua bigarren silaban, [-1] = azentua azken silaban, [-2] = azentua azkenaurreko silaban, [0] = hitz azentugabea.

méta, néke, jókü, jákin, güti, ttípi, sóka, zákü (ikus Larrasquet, 1939). Hau da, [+2] & [+1] > [-2].

2. GOIZUETAKO AZENTU-KLASEAK ETA METODO KONPARATZAILEA

Mendebaldeko hizkera batzuen azentuera askoz kontserbatzaileagoa bada ere (Hualde, 1993), puntu honetan ez digu argirik ematen, aipatutako hitz guztiak modu berean azentuatzen baitira mendebaldean: denak hitz azentugabeen klase orokorrean sartzen dira.

Argi indartsuagoa jasotzen dugu Goizuetako hizkeratik. Hizkera horretan lau azentu-klase kausitzen ditugu (Hualde & Lujanbio, 2008), non lehen klasea handiena baita (H = goranzko tonua, L = beheranzko tonua):

- (1) Azentu-klaseak Goizuetako euskaraz (Hualde & Lujanbio, 2008):
1. [+2H] *até, mendí, basó* 'oihan', *alába, ittúrri, arrántza* (astoarena)
 2. [+1H] *áte* 'ahate', *úme, áma, zéru*
 3. [+2L] *ollàr, eskòla, basèrri, arrántza* (arrantzaleena)
 4. [+1L] *bàso* 'edalontzi', *màisu, zèro, àrima, mèdiku, dènbo*

Lujanbioren (2013 [2018]) Goizuetako hiztegia miatzen badugu, aurkitzen duguna da Mitxelenak aipatzen dituen hasperenik gabeko salbuespenak [+1H] klasekoak direla Goizuetan, ia guztiz sistematikoki (ikus 2a); besteak, erregularrak, [+2H] klasekoak dira (ikus 2b)²:

(2) Herskari hasperenketa eta azentua: kognatuen erkaketa

a. Ipar EH	Goizueta	berreraikuntza	jatorria
bake	páke	*báke	< PACE
mutu	mútu	*mútu	< MŪTU
meta	méta	*méta	< MÉTA
merke	mérke	*mérke	< MERCE
neke	néke	*néke	< NECE
soka	sóka	*sóka	< SŌCA
zaku	záku	*záku	< SACCU
jakin	yákin	*e.ákin	
guti	gútxi	*gúti	
ttipi, txipi	ttíki	*típi, *tíki	
maite	mátte	*máite	

2 Salbuespen bat aurkitu dut: Goiz. *gorpút*, baina Ipar. *gorputz* (Zub. *khórpitz*). Hondarribian bi moduetan, txandaka: *górputz* ~ *gorpút* (Hualde & Sagarzazu, 1991, 147. or.).

b. akher	akér	*akhér	
athe	até	*athé	
bethi	betí	*bethí	
lepho	lepó	*lephó	
ithurri	ittúrri	*ithúrri	< *iturrí
ethorri	etórri	*ethórri	< *e-torr-í
ekharri	ekárri	*ekhárri	< *e-karr-í
ikhusi	ekúsi	*ekhúsi	< *e-kus-í

Beraz, Mitxelenak antzinako (Ipar Euskal Herriko) euskararako hipotesi bezala proposatu zuena baieztatzen da gaurko Goizuetako datuekin: bigarren silaban herskari hasperengabea duten hitzek azentua lehen silaban dute Goizuetan. QED. (/h/ frikari laringalak, aldiz, lotura lausoagoa bide zuen azentuarekin; ikus Hualde, 2022b).

3. ERKAKETA ZABALDUZ: EUSKARA BATU ZAHARRAREN AZENTUERAREN BERRERAIKETARANTZ

Azken puntu bat: nola lotu (2)-ko korrespondentziek ematen dizkiguten berreraikuntzak mendebaldeko azentubidearekin?

Hona Goizueta eta Bizkaiko iparraldeko hizkerak erkatuz bisilabadunetan aurkitzen ditugun azentu-korrespondentzia orokorrak, Lekeitioko hizkera mendebaldeko azentu-moldearen ordekaritzat hartuz (Hualde, Elordieta & Elordieta, 1994). Lekeition bereizkuntza fonologikoa bitarra da: hitz azentugabeak [0] vs. azentudunak [A]. Hitz azentugabeek azentua azken silaban daramate testuingururik gabe, hitz solte bezala, aipatzen direnean eta horrela markatzen ditut hemen, bi hizkeren arteko korrespondentziak argiago erakusteko:

(3)	Bisilabadunen azentua: Goizueta vs. Lekeitio	
	Goizueta	Lekeitio
[+2H]	mendí	[0] mendí
	gizón	gixón
	katú	katú
	basó	basó
	itxé	etxé
[+1H]	gáuza	[0] gausá
	séme	semé
	páke	baké
	mútu	mutú
	yóku	žokó
[+1L]	bèste	[A] béste
	bàso	báso
	àurre	áurre
	èia	égi
[+2L]	ollàr	[A] óllar

Ekialdeko eta mendebaldeko azentu-sistemak lotzeko –hau da, euskara batu zahararen azentuera berreiraitzeko– Goizuetako azentuera da giltza. Korrespondentziak azaltzeko hiru klase prosodiko berreraiki behar ditugu behintzat (cf. Hualde 2012, 2022a, 2022b, *pace* Egurtzegi & Elordieta, 2023): azentugabeak (gehienak: **mendi*, **aker*, **iturri*, **alaba* –edo, beharbada, *mendí*, *iturrí*, etab.–)³, azkena ez zen silaba batean goranzko azentua zutenak (**báke*, **mútu*, **séme*) eta beheranzko azentua zutenak (**bèste*, **àurre*, **ollàar* < **ollo+ar*, **basèrri*. Mendebaldean, [+1H] klasea galdu zen, hitz horiek azentugabe bihurtuz oro har eta modu honetan Iparraldeko hasperenketarekiko lotura ilunduz⁴.

Ziurtasun osoz esan dezakegu orain gaurko Goizuetako azentu-datuek azentuaren eta hasperenaren arteko lotura baieztatzen dutela; Mitxelenak proposatu zuena egiaztatzen dute: herskari hasperendunak silaba azentudunetan aurkitzen ziren, eta hasperengabeak, aldiz, silaba azentugabeetan.

Artikulu labur hau ariketa batekin bukatu nahiko nuke. Zer berreraikiko zenuke hurrengo adibideetarako? (erantzuna hurrengo batean).

(4) Ariketa				
Lekeitio	Goizuet	Zuberoa		berreraikuntza?
baké, bakiá [0]	páke, pákea	báke, bakía		
akér, akerrá [0]	akér, akérra	ákher, akhérra		
óllar, ollárra	ollàr, ollàrra	ollár, ollárra		
béste, bestía	bèste, bèstea	béste, bestía		
makílla, makillía	makilla, makilla	makhíla, makhilá		

4. ERREFERENTZIAK

- Egurtzegi, A. & Elordieta, G. (2023). A history of the Basque prosodic systems. *Diachronica*, 40(1), 30-72. <https://doi.org/10.1075/dia.20066.egu>.
- Hualde, J.I. (1993). On the historical origin of Basque accentuation. *Diachronica*, 10(1), 13-50. <https://doi.org/10.1075/dia.10.1.03hua>
- Hualde, J.I. (2012). Two Basque accentual systems and the notion of pitch-accent language. *Lingua*, 122, 1335-1351. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2012.05.003>
- Hualde, J.I. (2022a). Accent shift and the reconstruction of old common Basque accentuation. In J. Ito, H. Kubozono & A. Mester (arg.), *Prosody and prosodic interfaces* (pp. 29-62). Oxford University Press.

3 Gaurko frantsesean bezala, zaila da bi analisisien artean aukeratzea (Hualde, 2022a, 49. or.). Azentugabetasunaren hipotesiak mendebaldeko azentueran historia errazten du.

4 Badira salbuespen gutti batzuk korrespondentzietan. Goiz. (eta Hondarribia) *lekú* = Ipar. *lekhu* (Zub. *lékhü*), baina mendebaldeko eta erdialdeko hizkera gehienetan hitz markatua: *léku*; bestalde, Goiz. *dénda* = Lek. *dénda*. Hauek ere azaldu behar dira, noski. *Keine Ausnahme ohne Regel!*

- Hualde, J.I. (2022b). The reconstruction of old common Basque accentuation: Closing open issues. *ASJU*, 56(2), 77-106
- Hualde, J.I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio*. UPV/EHU; Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJUren Gehigarriak, 34).
- Hualde, J.I. & Lujanbio, O. (2008). Goizuetako azentua. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez* (377.-394. or.). UPV/EHU.
- Hualde, J.I. & Sagarzazu, T. (1991). Acentos del Bidasoa: Hondarribia. *ASJU*, 25(1), 137-152.
- Larrasquet, J. (1939). *Le basque de la Basse-Soule Orientale* (Collection Linguistique, 46). Société de Linguistique de Paris.
- Lujanbio, O. (2013 [2018]). Goizuetako azentu hiztegia. *ASJU*, 47(2), 1-86. <https://doi.org/10.1387/asju.18678>
- Mitxelena, K. (2011). *Fonética histórica vasca*. In J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.). *Luis Michelena. Obras completas VI*. Gipuzkoako Foru Aldundia; UPV/EHU. (Jatorrizko obra 1977an argitaratua)

